

MARMITX ZOMORROA

Aspaldi-aspaldi, orain zapaltzen ditugun errepide eta espaloiak zelaiak zirenean, Marmitx zomorroa jaio zen, bi antena luze eta hanka ugarirekin jaio ere. Haurra zela, baita gerora ere, egunak joan egunak etorri, han-hemen ibiltzen zen lagunekin jolas eta solas, aske. Alabaina, zoritxarreko egun batean, Marmitx eta bere lagun armitxoak zuhaitzez zuhaitz saltoka ari zirela, izaki erraldoi batzuk agertu ziren, bi hanken gainean ibiltzen ziren izaki handi eta oihulari batzuk: gizakiak ziren! Marmitx eta armitxoak ahozabalik geratu ziren, zur eta lur, zuhaitzen hostoen atzean ezkutatuta, isil-isilik, begiak erne eta gorputzak dar-dar. Zertan ari ote ziren gizakiak han? Halako batean, baina, alde egin zuten. «Eskerrak joan direla!», esan zuten armitxoek aldi berean, pozik.

Handik egun batzuetara, ordea, gizakiak berriro azaldu ziren, eta, sekulako makinatzarrak gidatuz, zomorroen bizilekua suntsitzen hasi ziren: betiko zelai, zuhaitz, lore eta harri-koxkorrak desagerrarazi zituzten, berentzako etxe, errepide eta dendak jarri nahi zituztelako. Inguruko animaliek eta zomorroek, ikararen ikaraz, urrutira egin zuten ihes, baina Marmitx eta armitxoak lurpean ezkutatu ziren, ez zutelako beren tokia utzi nahi.

Esan bezala, aspaldi gertatu zen hori, baina, lur azpian bizi zen landare berezi-berezi baten lurrinari esker, zomorroak lozorroan egon ziren 2022ra arte, gure auzoko kaleen azpian lo, harik eta obra baten zaratak esnatu zituen arte. Egun hartan, Marmitxek begiak ireki zituen, eta, obren ondoriozko lur-mugimendu bat aprobetxatuta, gora egin zuen, tirriki-tarraka gora, eta kalera atera zen. Ingurura begiratu, eta ez zitzaion batere gustatu ikusi zuena: autoak po-po! zarataka, kaleak zulatuta, berdeguneak zikinkeriaz josita, euskararik ez, kea nonahi, jendea oihuka, batzuk borrokan... «Zer arrai da hau!», pentsatu zuen, eta haserrea sentitzen hasi zen, haserre gero eta handiagoa, sabeletik gora. «Nork eragin du hau guzti hau?», esan zuen, ahapeka, begiak malkoz beteta zituela.

Orduan, erantzunak nahi zituenez, Salburutik bueltatxo bat ematea erabaki zuen, eta bi begiekin ikusi ahal izan zuen mundu gris honen sortzaileak helduak direla: umeek, animaliek eta zuhaitzek bezalaxe, ez daukate inolako errurik! Bada, nahikoa ikusi zuela pentsatu zuenean, triste eta haserre, zulora itzultzea erabaki zuen, baina ez han lo jarraitzeko, ez, armitxoen bila joateko baizik! Marmitxek argi zeukan: zomorroak, umeekin batera, kalera irten eta beren tokia aldarrikatzeko ordua zen, haserrea adierazteko ordua, helduei ohiturak aldatzea eskatzeko ordua.

Hala, inauterietan kalejira egingo genuela jakin zutenean, guregana etortzea erabaki zuten, eta esan ziguten inauterien bueltan urtero agertuko direla, euskara eta ingurumena gehiago zaintzen hasi ote garen ikusteko, elkar gehiago zaintzen ote dugun jakiteko.

Beraz, aurten ere gurekin izango dira inauterietako kalejiran! Zer ikusiko dute? Haien haserrea apaltzea lortuko dugu?